

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URBIDE ARABAKO UR PARTZUERGOA- CONSORCIO DE AGUAS DE ÁLAVA

Laudioko udalerrian 2023ko ekitaldiko bigarren hiruhilekoko edateko uraren hornidura eta estolderia zerbitzuen prestazio-tasei dagokien kontribuzio-errola

Laudioko udalerrian 2023ko ekitaldiko bigarren hiruhilekoko edateko uraren hornidura eta estolderia zerbitzuen prestazio-tasei dagokien errola prestatuta, publikoarentzat ikusgai jartzen da hamabost egun balioduneko epean, ALHAOn iragarpen hau publikatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, interesdunek komenigarriak kontsideratzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ditzaten.

Epe hori igarota, erreklamaziorik egongo ez balitz, errola behin betiko onartutzat emango litzateke.

Edateko uraren hornidura eta estolderia zerbitzuen prestazio-tasen kobratze-epeak:

A.) Epe boluntarioa: 2023ko abuztuaren 28tik urriaren 28ra, biak barne.

Helbideratutako ordainagiriak baimendutako finantza-erakundeetan kargatuko dira 2023ko abuztuaren 28an.

B.) Kobratzeko epe exekutiboa: 2023ko urriaren 29tik aurrera hasiko da epe exekutiboa, erre-kargu exekutiboak sortuz, premia murriztu eta premia arruntekoak, Arabako Zerga Orokorrari buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak adierazitako epeetan.

Hala adierazten da, guztiek jakin dezaten.

Ribabellosa, 2023ko uztailaren 17a

Presidentea

JOSEAN GALERA CARRILLO